

MEHETEGIKO NAGUSIA

Agertzekoak:

(hiru ahizpa mutxurdinak)
Andare Rhodendron: 66 urthe
Andare Rezeda: 64 urthe
Andere Rosa: 62 urthe
Kattalin: 35 urthe; etxeko neskatoa
Joana: 24 urthe; auzoko neskatoa

Agertokia:

(Barne bat guti eta aski plantakoa: ez eder ez itsusi. Halaber hiru fotila, lau kadira...
Armaritto bat xoko batean, mahain bat erdi-erdian...

*(Kattalin, lumasko jasño bat eskuan ari da erhauts khentzen, «Mehetegiko xakurra»
kantatzen duela bainan airea bakarrik)*

KATTALIN: *(Kantatzerik gelditu da eta beharria atherat buruz luzatzen duela)* Jes! Zerbeit gertatu bide zaio!... Usaian hemen dut hura, nere hiru mutxurdinak atherratu orduko!... Bai segur, zerbeit baduke! *(Berriz hasten da kantuz aire berean, hitzak eman gabe... Gero:)* Hiruak eta erdiak!... Oren laurden bat jadanik nere hiru mutxurdinak joanak direla!... Zer sorgin ari zait bertze hura? Atzoz geroz ez dudala ikusia!... Luze heldu da!... Ez da bederen erritu!... Bai... Bai.. ez da bertzerik! Eri da!... Eri da!... Gaixo Joana! Ez ahal da hilen agian holako neska plantakoa! *(Hipaka nigarez badoa atherat... heldu da gibelerat kantuz bethi aire berean)*... Nork daki? Behar bada batere ez da eri!... Ah! orai orhoitzen bainaiz! Bazkaltiarak bazituzten egun! Joanak berak errana atzo! Non othe nuen burua? Ah!... etxe onean da bederen hura!... Badu etxekandre bat pastiza bezain ona!... Eta zonbait bazkari dute emaiten!... Astean bizpahiru segurik!... Bazkari batek ondar onak uzten bethi! Biba zu Joana! Zuk ez duzu nik bezala goserik jasaitean! *(Kantuz aire bera)*... Jes! etxe huntan sathuz geroztik neskato, aire hori baizik ez dut gogoan eta ezpainetan: *(Kantuz emaiten ditu hitz hauk)* «Mehetegiko xakura zangoz-errainez laburra» *(Bere zango-errainer behatuz)* Ez naiz Mehetegiko xakurra bainan Mehetegiko nezkayoa, eta badut beldurra, hemen egoiten banaiz zonbeit aste gehiago, zango-errainak haziko zaizkitan makurtzen!... Segur naiz gure hiru mutxurdinek kantu hori ez dutela sekulan entzun!... Behar diotet kantatu egun horitarik batez!... Konprenituko othe dute? Ai! frikunak, aski habilak dire bai ez konprenitzeko ez knoprenituarena egiteko ere bai!... Ba othe dakit kantu guzia gero?... Hea! lehen kobla: *(airea bakarrik emaiten du)*... Bai hori badut!... Bigarrena *(airea bakarrik)*... Hori ere bai!... Hirugarena *(airea bakarrik)* Hamabi kobla bazituen ene haurren kantu horrek! Ez ahal du bihirik galdu xahartzean! Xaharrek bai aise galtzen dituzte biloak eta hortzak!... Orhoit naiz badela bat, kobla bat gero, azkenaren aintzixko naskim hum! hum! Hala hulakoa! Ez dakit erraiten ahalko dudanetz hura! Eta hura dut futxo! erran behar gorriena!... Bada kobla hortan hiz bat, beharri minberrek aditu nahi ez dutena! Zertako othe? Hitz horrek erran nahi duen gauza ez dutelakotz aditzen ahal nik uste! Zer bitxikerria haatik: delako hitzak arrabotsa ba eta usinik ez! Eta delako gauzak usaina ba eta harrabotsik ez!... *(Kantuz aire berean, hitzak erran gabe, azken bi bertsuak bakarrik hitzekin)* Etxekandreari gantza, nagusiari azken

putsa!... Oi! Ei! ai espakatu zait!... Ba! erranez geroz ez da hain itsusia!...
Erranen diotet bai hiru mutxurdiner ere!... (*Irriz dago bera*)

II

JOANA: (*Gordea oraino*) Kuku! Kuku!...

KATTALIN: To! kukua ere kantuz ari ni bezala!... Ikus bortz soseko bat badere badudanetz sakelan!...

JOANA: (*agertzean irriz*) Bortz soseko bat sakelan zertko hori Kattalin?...

KATTALIN: Hor zare beraz Joana?... Bazinaki nola berandetsi zintudan!... Zer bazkaria ahal zintuten!... He!...

JOANA: Bai Kattalin, ba!... bazkari bat gaitza!... Bainan ez dautuzu errana bortz soseko hura zertako zintuen!

KATTALIN: Zer erran zaharra ez baitakizu? Kukua lehen aldikotz aditzearekin kantuz, bortz soseko bat bederen balin baduzu sakelan, urthe sosa segura duzu! (*Sakela guziak bilhaturik*) Ardit bat ere ez dut! Xahu naiz urthe guzikotz!... Kuku ihartua! Madarikatua!... Kantuz hasi behar ere egun!...

JOANA: Ez khexa; Kattalin!... Etzen kukua! Ni nintzen athetik ari!... Ez nuzu madarikatzen, ni?

KATTALIN: Ez gaixoa Joana, ez!... Benedikatzen bai!... Zu zare mundu huntan nere zorion bakarra, nere iguzkia, nere ilhargla, nere izarra, nere zerua!...

JOANA: Aski Kattalin, aski!... Etziatu, ori; andere Rezedak aditzen!...

KATTALIN: Andere Rezeda!... Ez naiz sekulan hunarzen ahalko izen hori, ez bertze bier: Andere Rezeda, andere Rosa, hau oraino nonbeit han!... eta hirugarrena? Andere Rhodindon!...

JOANA: Ez da Rhodindon ez gero!...

KATTALIN: Badakit! Aldi guziez mezkealaten dut izen hori eta nere hiru mutxurdinek eratsiatzen nute!... Bainan berriz aditu orduko ahantzia dut!... Nola da xuxen?

JOANA: Andere Rhododendron!...

KATTALIN: Rho-do-den-don!

JOANA: Ez didon!... Dendron!...

KATTALIN: Dendron!... Rhododendron!!! Ez da hola orai ere!... Bainan erradazu zuk non izanak diren izen pherreka hoiien biltzen?... Ez dut egundaino holakorik ikusi almanakan!... Nongo zeruan dire sifefcanta hoik?...

JOANA: Ez dire zertan!... Baratzetan dire!... Baratzetan!...

KATTALIN: Baratzetan!...

JOANA: Hiru loreen izenak dire: Rezeda, Roza eta Rhododendron!

KATTALIN: (*irriz urratua*) Hiru loreen izenak? Ha! ha! ha!... Gure hiru mutxurdin lore pollitak!... Ha! ha! ha!.,. Rhododendron oraino nonbeit han ez baizait iduritzen ere lore baten izena dela! Ha! ha! ha!... Dudarik ez da aita baratzezaina duten segura!... Ha! ha! ha! Ixo! Aditu duzu?.,. Ez ditut baden nere bi loreak hor! (*Badoa atherat... gibelerakoan*) Ez, ez! etziren hek! Harrabotsik ez dute eralorek usain tzarra!... (*Arte hortan Joana itzuli da, ustez hiru mutxurdinak ziren heldu*)

III

KATTALIN: (*zoko guzietarat behatuz*) Zer egin da Joana? Gaixoa izitu da! Etzen bada zerik!... ni ez nute izitzen batere nere hiru lorek! To! kadira hemen aspan zer da hau? (*oihal batean koropilaturik zerbeit jateko: hartzen du eskuetan*) Zoin planttako den haatiik Joana hori!... Egun ere ekarri daut bazkarri ondarreria zerbeit!... Oilo ixter bat! Oilaxko hegal bat!... Ongi-ethorri segurki eta halere!... Egin dudan

baskariaren gatik, badut zerbeiten beharra. Ogia ere ez du ahantzi! Badaki ala bainan armairu guziak gako ditueka heman!... Pegarra bakarrik libroan!... Hauk jan ondoan, hari ere hitz bat erranen diot beharri-ttutturak!

(Jaten hasi da, bizkarrez atheari eta fotil batean jarririk)

IV

RHODODENDRON: *(harrabotsik gabe sarhua da; Kattalini zer ari den ohartzearekin, khexu khexua)* Ha! ha! Kattalin atxemaiten zaitut erdiz erdi!...

KATTALIN: *(higitu gabe)* Bai, andere Rhodindon!

RHODODENDRON: Milla aldiz errana dautzut ez naizela Rhodindon! Bainan Rhododendron.

KATTALIN: Luzegi da nik ontza erraiteko!

RHODODENDRON: Errazu Rhododendron.

KATTALIN: Rhododindon! *(arrapozki)*

RHODODENDRON: Ez dindo...! Dendron!...

KATTALIN: Dendron!

RHODODENDRON: Erraiten bazinaut Andere!... Etzaizkitzu ez, ezpainak makurtuko erranikan ere Andere!...

KATTALIN: Andere!... Baduzu aski hola?

RHODODENDRON: Zer ari zare hor?

KATTALIN: Jaten!

RHODODENDRON: Jaten!... Badazu burutik!

KATTALIN: Burutik ez!... sabeletik!... Zer uste duzue, goseak hil nahi naizela? Ez ahal badut segurik ez!

RHODODENDRON: Nondik athera dituzu jateko hoik?... Armairioak ontsa hetsiak ginituen, gure ustez!

KATTALIN: Zuen armairuetan ez da sekulan holako oilo ixterrik sortu ez sartu *(sudurraren azpian emaiten dako oilo ixtera)*... Sobera zikoitza zaizte ba hlruak!... Ez dut, zuek bezala usaina eta ihintza aski bizitzeko!...

RHODODENDRON: Usaina eta ihitza, zer erran nahi duzu!...

KATTALIN: Nik badakit zer erran nahi dudan!... Baratzerat zoazi ikusteko zertarik bizi diren loreak! *(Irriz dago)*

RHODODENDRON: Ez da haatik ez hunatik!... Burua nahasia du hunek!... Horra zer sobera jatea!... *(Hurbildurik oihu egiten dio):* Kattalin!... *(hau ez baita higitzen ere, berriz)* Kattalin!...

KATTALIN: Zer duzu hola oihuka? Ez naiz gogora!... Zer nahi duzu?

RHODODENDRON: Mokonesa ahantsirik joanak baiginen hiraak, jauts adazu bat gainetik!

KATTALIN: Bat bakarrik!... Bedera...

RHODODENDRON: Bat erran dautzut eta ez bedera! Hiru mokonesen higitzen ariko gare, batekin egiten ahal dugularik hiruek! *(Kattalin atheratu da oro keinu, oihala eta oihalaren barnekoak ahantsi gabe)*

V

RHODODENDRON: Bai neaka horrek badu zerbeit!... Pollitak ginitazke burutik johan bazaiku arras!... Paurrat beharko ginuke igorri!... Nere ahizpa Andere Rezeda eta Andere Rozekin beharko naiz mintzatu sarri berean. Pauen gure gain litake alabainan! Hobe dugu kanporat ematea lehen bai lehen!... Kanporat emaita!... Bai eta gero? Non atxeman dugu nezkato bat hau bezain merke?... Ez da aise, izanen! Holako diruketa galdatzen dute oraiko nezkatoek! Hau ere pagatzen dugu bai

hogoi-ta bortz libera hilabethean!... Bada zerbeit!... Baina bertze batek galdatuko dauzku hogoi-ta hamar segurik eta behar bada hogoi-ta hamabi!... Hauxe da ixtorioa!...

VI

JOANA: (*Rhododendron ikusirik harritua*) Barkatu othoi, andre Rhododendron!... Zer nuen...

RHODODENDRON: Zu zare hor Joana? Zuk bederen ontsa erraiten duzu nere izena!... To!... hain xuxen gauza bat galdatu nahi natzun aspaldi huntan!... Gure artean dagola haatik!...

JOANA: Zerbitzari andere Rhododendron!

RHODODENDRON: Laketua zare naski auzo hortan?

JOANA: Bai, bai ezin hobekin!

RHODODENDRON: Eta... Eta... zonbat duzu ilhabetea?

JOANA: Hiru ehun libera!

RHODODENDRON: Hi... hi... hiru ehun libera? (*flakatua bezala erortzen da fotila batean, Joanak laguntzen du bere baitaratzen*) Hiru ehun libera! Joana gaixoa ez zazula othoi holakorik aipha: era Kattalin!... Xahu ginitazke!

JOANA: Bainan badaki aspaldi!

RHODODENDRON: Ba... ba... badakiela!... Ez dugu segurki kanporat emanen!... Nahi duena egiten ahalko du, ez dugu Pauerat ere igorriko!...

VII

KATTALIN: (*sartzean*) Horra zuen mokonesa, Andre Rhodindon!... To! orai ere gaizki erran dut!...

RHODODENDRON: Berdin du, berdin du Kattalin gaixaa!

KATTALIN: Holakorik ez dautazu behin ere erran!... Dena den Andere Rezedo eta Andere Roza zure beha balin badaude zintzatzeko, pekada sudarraren puntan dukete aspaldi!...

RHODODENDRON: Pekada? Zoin pekada?

KATTALIN: Ez bi hegalakilako hura ez segur!... Bertze bat!... Ez jateko ez edateko on ez den hura!...

RHODODENDRON: (*atheratzean Joanari*) Ez, ez du Pauerat ere igorriko!

VIII

JOANA: Zer egin diozu Kattalin? Deusik ez dut konprenitu haren solasetan!...

KATTALIN: Zoin solasetan?

JOANA: Galdatu daut zonbait irabazten nuen!... Eta erran diotalarik aspaldi dakizuna, hiru ehun libera! hasi zait...

KATTALIN: Aditu dut! Ez nutela kanporat emanen!... Ez baitute ni bezain merkerik hatxemanen!...

JOANA: Bainan Kattalin erradazu bada zertako zauden hemen soldata mehe huntan, bertze nonbeit gehiago bazinukelarik!

KATTALIN: Erranen dautzut Joana beharri xilorat!... Nerhi ez salatzeotan, he!... Orai arte egon naizen toki guzietan sehi kondu nintzen, hemen eta etxekandre naiz!...

JOANA: Zu?... etxekandre hemen?..

KATTALIN: Bai, etxekandre... ni... hemen!... Nere hiru mutxurdin-loreak sobera zuhurrak dire nezkatu bati gehiagoren emaiteko!.. Horra zertako ez nuten kanporat eman

nahiko sekula! Hahi dudana egiten dut heiekin, gaina hartua diotet, nik dut manatzen hemen!...

JOANA: Mahainean salbu nazki?....

KATTALIN: Mahainean salbu bai!... Hori dut nere itzal bakarra!... Hortan ez da deus egitekorik! Ez gure Jainkoak, ez debruak, ez nik, ez diote gure moltza idek-arazten ahal!... Nahio lukete sabela ideki haixtur ukaldika!... Badakigu ostian bazkaltzeko zer jan duten?

JOANA: Jainkoak daki!

KATTALIN: Nik ere badakit! Arroltze bat! Arroltze bakar bat hiruen artean!... Kuxkuan!... Aldizka bustiz gorringo guzia jan dute; lehenik eta gero xurtingotik gehiena!...

JOANA: Zertako ez xurtingo guzia? Ala ez dire xuringokoak?

KATTALIN: Milikatuko zuten bai hura ere!... Beharrik Andre Rezeda orhoitu baita hor nintzela!... Hora nere egungo baskarria beraz: xurtingo miko bat kuxku guziarekin!... Bainakien beharrik zu jitekoa zinautala zerbeit, ondar onekin!... Zu ez bazinitut, nere lore petentak aspaldi utziak ninduzken hazitako!... Hazitako!... Hazi pollitak Jainkoaren den!... Tomate haziak badire bederen!...

JOANA: To! ...orhoit-arazten nuzu tomate egiten ari garela: botoilak suaren gainean ditut. Ez ahal zait bihirik hautsi!... Banoa behako baten emaiterat eta heldu naiz abain!...

KATTALIN: Zoazi, zoazi, Joana!... Berehala arte...

IX

KATTALIN: Zer artho puzka, Joana hori!... Langilea eta bihotz ona!... Lana baizik ez du gogoan!... Ba, nik ere ba!... Nikk ez baitut hogoi-ta bortz liberarena baizik egteko ilhabethean!...

(Mehetegiko xakurra kantatzen du hitzak erran gabe)

Kantu hau ere bethi gogoan dut!... Bai eman behar dakotet hamekagarren hura ere!... Pollitena da eta!...

(Kantatzen dituela azken bi bertsuak)

«Etxekandreari gantza, nausiari azken putza»... Gaixo xakurrak horren egiteko indarrrik aski ukan baitzuen oraino! Nik ere holatsu utz nezakete nere hiru etxekandrer; hiruentsat bat, eguerdiko aroltzea bezala!... Ni baino lehen hilen baitire, ohantza dute! Hiltzean zer utziko othe dautate? Ahaide bihi bat ere ez dute, ez hurbilik ez urrunik!... Beren ontasunak nori utz dezakete niri baizik? Baduteka ausarki diru, etxe eta lur!... Doi-doia Joanari erraiten bainion atxekandre naizelakotz naigola hemen! Ez da egi-egia hori!... Erran beharko nion: egun batez etxekandre izanen naizelakotz hemen!... Bainan hori ez baita polli-pollita, nehoi ez diot salatzen ahal nihauri baizik! Egon batez aberatz izanen naiz!... Bai, andere Rhodendon, aberatz!... Adituko dut nik orduan andere Kattalin! Zoin ontsa doazin bi hitz hoik elgarrekin eta ezkuz-ezku!... *(kantuz)* «Nausiari azken putsa!»... Etzen hanbatekoa hori, bainan nausi batentzat azki!... *(Kattalinek azken hauk erraitearekin, sartu dire hiru mutxurdinak).*

X

REZEDA: Zer zautzu nautziarentzat aski, Kattalin?

KATTALIN: Deus ez, deus ez, andere Rezeda! Nere buruarekin ari nintzen!...

ROZA: Zer ari zinen zure buruarekin?

KATTALIN: Solasean, andere Roza!

RHODODENDRON: Eta zer solas zinerabilan, ez bainiz ausartegi?

KATTALIN: Zu ausartegi, andere Rhodindon?

RHODODENDRON: Rhododendron, Kattalin!... Dendron eta ez dindon!

KATTALIN: Dendron nahiago baduzu, niri berdin zait...

RHODODENDRON: Eta beraz zer zen zure solasa?

KATTALIN: Jes! hala hala da!... Dendron horrekin denak ahanzten ditut eta hori ez ikasten!... Nere solasa etzen baitezpada solasa, kantua zen!...

ROZA: Zer kantuz ari baitzinen?... Dohakabea zintzuraren higatzeko ere!

KATTALIN: Hori ere hola da!... Hemen ez da inahalaz deusik higatu behar!... Ahokoak hasteko ez ditugu janarekin higatuko!... Bainan nere zintzurak ez du deusik hirriskatzen! Larru azkarrez egina dut!... Eta, nahi baduzue, sarri xaramelatuko dauzuet nere kantu pollitta!... Lauak eta erdiak baitire han egina dautzuet lehenik dute presa batna!...

ROZA: Baduzu burutik, Kattalin?... Dute presa batnu!... Ez dakizu duterik ez duzula sekulan hartzen?..-

REZEDA: Zainak alehatzen ditu duteak.

KATTALIN: Kafe ttotta bat beraz, bero beroa?

RHODODENDRON: Kafea eta bero beroa?... Beraz gabeko bi gastu!...

REZEDA: Badakizu, Kattalin, arratzalde guzietz gure krakada zer den? Kopa bat ur garbia eta freskoa, ogi axaltto miko batekin!

KATTALIN: (*atheratzean*) Laster da hori!... (*Bere burua bezela.*). Ai! zeruko ama ona, Urthe guzian garizuma dugu hemen!... Jinen da lori Bazko ere noizbeit!...

REZEDA: Ez, ez! Ez ditake hola joan!... Neska zirtzil horrek gaina hartzen ari dauku arras!... Guk errana egiten duenean ere, zernahi erranka baizik ez dut egiten!

RHODODENDRON: Egia zuk, Rezeda maitea!... Bainan zer egin?

REZEDA: Zer egin?... Kanporat eman! Rhododendron maitea, hatxemaiten ahal bazinauke auzoko Joana bezelako bat!... Zer neska gisakoa hura et umila!

RHODODENDRON: Bai gisakoa et umila!... Bainan Rezeda maitea, badakizu auzoan zonbat irabazten duen?... Erraiten ahalko dudanetz ere ez dakit, hain da izigarria!...

ROZA: Hogoi-ta bortz libera baino gehiago baititu?

RHODODENDRON: Uste nuke ori!... Doi-doia jakina dut berak erranik!... Bainan sekulan ez dut erraiten ahalko!... Zintzurran trebez geldituko zaut!

REZEDA: Errazu erhiekin!

RHODODENDRON: Ez dut erhrik azki erraiteko!

ROZA: Eman ditzagun hiruen erhiak (*hiruek beren ezkuak atheratzen dituzte erhiak ontsa ageri*)

RHODODENDRON: Hola ere ez da aski!... Hiruen artean hogoi-ta hamar erhi ditugu bakarrik!...

REZEDA: Zangoetako erhi zonbeit eman ez!... (*oinetakoren khentzerat doa*)

RHODODENDRON: Ez du balio oinetakoen khentzea, Rezeda!... Zangoak ez dituzu behar bada garbiegiak!... Edo galtzerdiak xilo!... Eta bertzela ere ez litake azki!...

ROZA: Zonbat mila sorgin ditu ba Joanak...

RHODODENDRON: Ikusten dituzue gure hogoi-ta hamar erhiak? Joanak baditu hamarretan gehiago libera oraino!

REZEDA: (*karkula eginik*) Zer!... Hi... hi... hiru...

RHODODENDRON: Bai, hi... hi... hiru ehun libera! (*hiruak flakatuak bezala daude aphur bat*)

ROZA: Hi... hi... hiru ehun libera!... Eta gure Kattalinekin hogoi-ta bortz!...

RHODODENDRON: Gauza bat arras bitxi zaut: gure Kattalin holako soldatan zertako dagon hemen, bertze nonbeit gehiago balukelarik?...

ROZA: Zertakotz?... Maite gaituelakotz!... Hain onak gare harentzat!...

RHODODENDRON: Kattalinekin gu maite?... Ez gaitu eta begietako zikina baino gehiago ikusten ahal!... Ez bertze zerbeit da!... Zer?

REZEDA: Bilha dezagun elgarrekin!... Kattalin zertako dago hemen?... Hemen lan guti duelakotz? Beraz alferkerriaz?

RHODODENDRON: Ez ditake erran alferra dela! Etxeko lanak ontsa egiten ditu eta badakit auzo Joana ere laguntzen duela bere lanetan!... Ez diot deusik erran oihuka hasiko baitzitzaitan, bainan herenegun oraino haren xurikiten egiten ikusia dut?...

ROZA: Ha!... badakit oraino zertako dagon gurekin!... Gu bezala delakotz! Ez du maite jatea!...

RHODODENDRON: Jatea ez maite?... Gure zartain zaharrena bezain gormanta da-eta!... Doi-doia oraino, gure mokanesaren bilha jin naizelakotz, oilo ixter baten jaten arizen!...

REZEDA: Oilo ixter bat?... Nondik atherraia zuen? Berrogoi-ta hamar urthe segurik baditu oilorik ez dugula jastatu!... Zure lehen komunionekeo zen ori, Roza maitea! Kattalinek ez ahal zuen haren ondarretik!...

RHODODENDRON: Erraduzue bada zertako baden hemen?...

ROZA: (*gogoetatua egon ondoan*) Badut, badut oraikoan!... Ez delakotz sosari atxikia!...

RHODODENDRON: Sosari ez atahikia Kattalin?... Aldi guzietz hilabethearen hamabortzetik hasten zaut nardatzen ere bainu! hilabethearen ondarra hurbilltzen ari dela erranka!...

REZEDA: Nork erranen dauku hogoi-ta borts liberetan zertako dagon hemen?... Ixo!... hor dugu.

RHODODENDRON: Luze Kattalin, luze krakada hori!...

KATTALIN: Bai, ori, andere Rhodindon...

RHODODENDRON: Dindon!

KATTALIN: Dendron beraz!... Batere uzte gabeen pegarra hutsa nuen!... Eta ithirria urrun!... Ura garbiago eta freskoago baizik ez duzue izanen!...; (*artean mahainaren gainean eman ditu hiru kopa eta hiru ogi puxka*)

ROZA: Eta zuk Kattalin ez duzu ur xorta bat hartzen?... Arraz on da bazkariaren beheiti igortzeko!.

KATTALIN: Ba andre Roza, ner bazkarriak ez du holako lagun beharrik beheiti joaiteko!... Bera joanen da segur!...

RHODODENDRON: Eta hauxe dire ogi puzka handiak!... Errekan nahi gaituzu eman nazki!... (*hiru ogi puxken erdiak emaiten ditu bazterrerat*)

KATTALIN: Errekak ere norbeit behar du bai, andere Rhododendron!...

RHODODENDRON: Dendron!

KATTALIN: Dendron!.. Egun arras omore onean naiz!... Eta zuek jaten ari zaiztelarik, nahi dautzuet kantu xahar bat eman!... (*jartzen da*)

ROZA: Hea ba, Kattalin!

KATTALIN: (*eztul bat egin ondoan*)

Mehetegiko xakurra
Zangoz-errainez makurra,
Berga bat luze muthurra,
Larrutik hurbil hezurra,
Urthe guzia barura,
Zeren den toki xuhurra!...

ROZA: Gaixo xakurra!... Gero!...

KATTALIN:

Amak ttikitik utzia,
Esnerik gabe hazia,
Tripa errainer josia,
Ulix jaten hasia,
Xurikok bere bizia
Hola derama guzia.

ROZA: Gixagaixo xakurra!... Eta zer izen pollita Xuriko!...

KATTALIN:

Xaur gaixoa halakoz

Merke ase zutelakotz,
Tripa hutsik ilhun gogoz,
Pleiniz zagon egun oroz,
Hatzka zangoz eta besoz,
Nihon etzauken kukusoz!

REZEDA: Os! eta nik ere ez ditut batere maite kukusoak!

RHODODENDRON: Eta hain dire xitxi jaleak!

ROZA: Gero Kattalin!

KATTALIN: Ez baitzaizuet sobera ausatu nahi, banoa azkenetarat!...

Zonbeit gau egun bakarrez
Gorde egonik, heralez,
Atherra zen jan beharrez,
Hamikatua nigarrez,
Estalia zaragarrez,
Lakastaz eta zakorrez.

RHODODENDRON: Phu! zikin!... Aski hola, aski Kattalin!

KATTALIN: Ja!... pollitenak orai dira eta!...

Sukaldean nehor ez da
Sartzen da xakur herresta,
Oilaskoa zen prest-presta,
Zeren zen herriko phezta;
Usain milik eta jasta,
Dena jaten du haseta.

REZEDA: Gormant errekitua!... Holakorik bederen etzaiku gertatuko oilaskorik ez baitugu sekula!

KATTALIN: Zerbeit bada holako lanjeretlk kanpo izaitea! Ba bainan gero?

Etxeko-andre khexua,
Hor heldu da hats-hantua
«Xakur madarikatua,
Eia hor usu-usua,
Nik hauts-arteana burua,
Egik hire ordenua!»

RHODODENDRON: Ederki Ederki!... Biba etxekandre hura!... Nik ere berdin eginen nion sakur tzar hari!...

ROZA: Zer da ordenua?

KATTALIN: Ez baitakizu zer den ordenua, andere Roza!. Frantsesez testament erraiten da!...

Egina ahal duzue he? Xurikok hasteko laster egin zuen berea, gaixoak!...
Ordenuak hau du beltza:
Denen uztea bertzentzat!
Xurikok badaki ontsa
Nori zer utz, nola pentsa:
Etxekandreari gantza,
Nausiari azken putza.

REZEDA: Ho! ho! Kattalin, azken hori itsusia duzu!... Nausiari azken!!!! Ho! Ho!...

RHODODENDRON: Etxekandreak bederen zerbait on ukan zuen!... Banan nausiak?... Azken...

KATTALIN: Ez dakit bainan nik daukat Xurikoren gantza ala azkon putza elgarren bethe zirela, erran baditake segurik!...

RHODODENDRON: Zoazi Kattalin, zoazi sukalderat... Altxaz kitzu kopa hauk, hautsi gabe!... Hain kario dire!...

RHODODENDRON: (*Kattalin atheratu ondoan*) He!... He!... zer zaitzue?
ROZA: Kantu pollita haste hartan, bainan gero?... Nausiaren azken...
RHODODENDRON: Roza ez naiz kantuaz mintzo!... Zer diozue Kattalinen maltzurkeriaz?
REZEDA: Kattalinen maltzurkeria?... Zertan?
RHODODENDRON: Zertan?... Ez duzue beraz deusik konprenitu?... Ordenua?... Testameta?...
RHODODENDRON: Ez duzue konprenitu zertako dagon Kattalin hemen hogoi-ta bortz liberetan?
REZEDA: Ez batere!
ROZA: Mikorik!...
RHODODENDRON: Esperantza baitu gure ordenua haren alde eginen dugula! Hots!... ditugun guziak hari utziko diozkagula!...
ROZA: Zertako ez?... Nori utziko ditugu berdin?... Ez ditugu zorigaitzez gurekin eremaiten ahalko!
RHODODENDRON: Kattalini utz?... Sekula!... Sokula santan!... Nahiago ninduzke hil aintzin denak jan hari utzi baino!... Ha! Ez!.. Sobera trufatu da gutaz!... Eginen dut nik gure ordenua eta ikusiko duzue!... (*Hartzen du paper xuri bat, izkribatzen zerbeit eta gero ahopetik, bertze nehork ez adltzeko gisan, bi ahizper irakurtzen eta hiruk irriz daude... Kattalin sarthu da Rhododendronek ordenua mahaineko tiroirrean gordetzearekin*).

XIV

RHODODENDRON: Elizaraino ari baigire arratseko othoitzarren egiterat, norbeit heldu bada gu ikusi nahiz, errozu laster hemen gabela!..
KATTALIN: Ontsa da, Andere Rhodindon!
RHODODENDRON: Kazko tzarra ez bertzea!... Rho-do-den-dron!... Den-dron!...
KATTALIN: Ontsa da...; dendron!... (*Atheratzen dlre hiru ahizpak Rhododendron kexu*)... Zoaate!... zoazte Mehetegiko lore garda-tzak!... (*Rhododendron bezala mintzo*) «Norbeit heldu bada gu ikusi nahiz!...» Zuek ikusi nahiz? Nehork etzaituzte eta ikusten ahal ere...

XV

JOANA: (*athetik*) Kuku!... Kuku!...
KATTALIN: Bai segurki, hobeak dire kukutzeko!... Zato Joana, zato nere iguzkia!...
JOANA: Ikusi ditut atheratzen eta lanak egintxeak batitut...
KATTALIN: Arratzeko othoitzaren egiterat jonak ditut nere lorak!... Zikoitz zar hoiek uste badute Jainkoak entzuten dituela!...
JOANA: Zertako ez ditu entzuten?
KATTALIN: Bihotza zikoikerriak usteldua dutelakotz! Hoiek ez dute ez Jainkoa ez laguna maite! Sosa bakarrik!... Hoiien Jainkoa sosa da!...
JOANA: Guk ere ez diogu ez thu egiten!
KATTALIN: Ez behar ere ez!... Bainan guk bederen baginu, xahutzeko ginuke eta ez zoko batean herdoiltzeko uzteko!... Pirripita bezala sosa biribila egin dute, kurri dadien kurri, eta ez tokiaren gainean egon!... Ez delarik! ez da!... Bainan badelarik, ez balitz bezala bitzitzea!...
JOANA: Bazinu zuk zer egin zinazake?
KATTALIN: Sosa banu nik!... Beharko lituzke ba mutxikoak eta zazpi jausiak eman usu!... Ontsa jan, ontsa edan, ontsa aphain, ibil harat eta hunat, ontsa jostu!... Horra!...

JOANA: Kattalin gaixoa! Maita dirua berarentzat ala emaiten dituen atseginentzat maita, ez othe dire biak berdintsu?... Ez othe dire biak diruaren sobera maitatzea?...

KATTALIN: Ja... ja... ja...! Eta gero ere zer nahi den, horra nik zer egin nezaken! Zer eginen dudan egun batez, aberatz izanen naizelarik!

JOANA: Aberatz izaiteko ezparantza baituzu?

KATTALIN: Dudarik batere gabe!... Norentzat uzte duzu hiru lore zimaildu hoiien ontasunak??? Ontsa irabaziaz izanen ditut sesgurki!... Hogoi-ta bortz liberetan hemen bainago gosea eta egarria!... Adiarazia diotet bai ostion eta abilki Mehetegiko xakurraren kantua emanez!... Konprenitu othe dute?... To!... orhai orhoitzen bainaiz, zeren sartzen arizen doi-doia gure Andere Rhodindon?
(*Tiroirra idekitzen du eta delako papera ezkuetan hartzen*)

JOANA: Kattalin paper horren idekitzeko dretxorik ez duzu!...

KATTALIN: Dretxorik ez denean hartzen da Joana!...

JOANA: Gaizki ari zare Kattalin!...

KATTALIN: Xo!... xo!... Ai! ei! ai! Bihotza tanpaka ari zaut!... (*Irakurtzen duela*)... «Hau da gure ordenua»; jarri behar naiz, ez nauke xutik! «Hau da gure ordenua»: Ordenuak hau du beltza denen uztea bertzentzat. Beltz hori ihes ezin egin guk ere, ditugun guziak uzten ditugu herriko hamar familia beharrener. Gure sehia ez baitugu deus gabe utzi nahi, Kattalini uzten diogu azken...

JOANA: Azken zer?

KATTALIN: Bugresak ez bertzeak! (*papera aurtikitzen du lurrerat*)... Banoa berehala nere paketaren egiterat! (*Atheratzen da khexu saminean diolarik*): Bugresak!... Higingarriak!...

JOANA: (*Papera bildurik*) Kattalini uzten diogu azken p.....! P. hori zer othe ditake!... Ha! bai! bai!... Ez da hanbat aseko ez jostatuko horrekin!... Horra Kattalin Mehetegikoo nausi bainan ez etxekandre.